

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2019 FORU DEKRETUA, urriaren 15ekoa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2019, de 15 de octubre, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 3ko 84/2016 Foru Dekretuaren bidez, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautu zen, sailaren egitura Ahaldu Nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretura egokitzeko, funtsean; azken dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren sail berriak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen ziren.

Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 84/2016, de 3 de mayo se regulaba la estructura orgánica del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural por primera vez al objeto básicamente de su adaptación al Decreto Foral del Diputado General 94/2015, de 2 de julio, por el que se establecen los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones.

2017an, maiatzaren 23ko 70/2017 Foru Dekretua onartu zen. Haren bidez, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen zen, eta 2016ko foru-dekretua indargabetu zen. Halaber, 70/2017 Foru Dekretua Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 26ko 87/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

En el año 2017 se aprobó el Decreto Foral 70/2017, de 23 de mayo, por que se regulaba la estructura orgánica del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, este Decreto Foral derogaba el anterior Decreto Foral del año 2016, asimismo, aquel Decreto Foral fué modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2018, de 26 de junio

Agintaldi berrian, Ahaldu Nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiako sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri ziren, eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila mantendu zen.

Con la nueva legislatura, mediante Decreto Foral del Diputado General 101/2019 de 1 de julio, se establecieron los Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones manteniéndose el departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Aurreko agintaldian, egunerokoak emandako esperientziaren ondorioz eta hausnarketa egin ondoren, garbi geratu da aldaketa sakonagoak behar direla, eta aldaketa horien oinarri nagusia da Bizkaiko Lurralde Historikoko espazio naturala modu bateratuan kudeatu beharra.

A lo largo de la pasada legislatura, fruto de la experiencia del día a día y después de una reflexión, ha quedado patente la necesidad de abordar cambios más profundos, cambios que se fundamentan principalmente en la necesidad de gestionar conjuntamente el espacio natural del Territorio Histórico de Bizkaia.

Epe laburrean, helburua da organo bakarrean bateratzea, modu koherente, efikaz eta eraginkorrean, Bizkaiko naturagune guztien kudeaketa: parke naturalak edo ingurumenaren ikuspuntutik babestutako gunek, ondare-mendiak, herri-onurako mendiak. Organo berean sartu behar da lurraldeko ehiza-jarduera.

El propósito es , acorto plazo, unir bajo un mismo organo de modo coherente, eficaz y eficiente la gestión de todos los espacios naturales de Bizkaia: los Parques Naturales o Espacios Protegidos medioambientalmente, los montes patrimoniales, montes de utilidad pública, así como la actividad cinegética del Territorio.

Bestalde, saileko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzua, hierarkikoki, foru-diputatuaren ardurapean dago gaur egun, eta komenigarritzat jo da zuzendariorde berri honi atxikitzea organikoki, antolaketa hobetzeko.

Por otra parte, los servicios Generales del Departamento se encuentran a día de hoy dependiendo jerárquicamente de la Diputada Foral, y se ha visto conveniente, para una mejor organización, adscribirlos orgánicamente a esta nueva subdirección.



Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 14. eta 17. artikuluek ahalmena ematen diote Bizkaiko Foru Aldundiari Aldundiaren barruko sailen egitura organikoa eta antolaketa barne-araudiak onets ditzan.

Los artículos 14 y 17 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, atribuyen a la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para aprobar la estructura orgánica de los Departamentos Forales en que se divide la Diputación Foral y los Reglamentos internos de organización.

Bestalde, foru-arau bereko 60. artikulua xedatzen duenaren arabera, Foru Aldundiari dagokio, kasuan kasuko foru-diputatuak proposamena eginda, sail bakoitzaren egitura organikoa eta erregelamendu organikoak onestea, foru-dekretu bidez.

El artículo 60 de la misma Norma Foral establece que corresponde a la Diputación Foral, a propuesta del/a diputado/a foral correspondiente, la aprobación de la estructura orgánica de cada uno de los Departamentos y de sus Reglamentos orgánicos que se realizará por Decreto Foral.

Azkenik, foru-arau horretako 14.1. artikulua eskumena ematen dio Ahaldun Nagusiari dekretu horiek emateko eta argitara daitezela agintzeko.

Finalmente, el artículo 14.1 de la citada Norma Foral confiere al Diputado General la competencia para expedir los Decretos y ordenar su publicación.

Beraz, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.14 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko urriaren hamabosteko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

Por lo tanto, y de conformidad con lo previsto en el artículo 17.1.14 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones de los Territorios Históricos de Bizkaia, a propuesta de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural y previa deliberación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en reunión de quince de octubre de 2019

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1. artikulua bakarra.

Artículo único

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onestea; foru-dekretu honi eranskin gisa batuko zaio erregelamendu hori.

Aprobar el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural que se incorpora como anexo al presente Decreto Foral.

Bilbon, 2019ko urriaren 15ean.

Dado en Bilbao, a 15 de octubre de 2019.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru-diputatua
La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

ELENA UNZUETA TORRE

UNAI REMENTERIA MAIZ

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA
ZAINTEKO SAILAREN ERREGELAMENDU
ORGANIKOA

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Eskudantziak eta eskumenak.

1. artikulua. Eskudantziak eta eskumenak.

1. Antolamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari ematen dizkion eskumenen barruan, foru-dekretu honetan ezartzen direnak esleituko zaizkio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.

2. Zehazki, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari honako eskumen hauek dagozkio:

Autonomia Estatutuak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legeak, ingurumenari eta naturaren kontserbazioari buruzko Estatuko eta erkidegoko legediak, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak Foru Aldundiari esleitutakoak, baldin eta foru-dekretu honetan araututako gaiei badagozkie eta foru-dekretu honetan adierazten diren termino eta edukiekin bat badatoz. Halaber, lurraldearen garapen iraunkorrean aurrera egiteko, Bizkaia 21 programa koordinatu, sustatu eta garatzea ere badagokio Sailari.

Bizkaiko ingurumen-politika zehaztu eta garatzea, ingurumen arloan kalitate handia duen lurraldea lortzeko. Politika hori printzipio hauetan oinarrituko da: iraunkortasuna, prebentzioa, erantzukizun kolektiboa, elkartasuna, gaitasuna eta subsidiarotasuna. Halaber, herritarren ongizatea eta garapen sozioekonomikoa lortzea, ingurumenaren iraunkortasuna kontuan hartuta, eta ingurumen arloko organo foral gisa eratzea.

REGLAMENTO ORGÁNICO DEL DEPARTAMENTO DE
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

TÍTULO I

Disposiciones Generales

CAPÍTULO I

De las Atribuciones y Competencias

Artículo 1. Atribuciones y competencias

1. Dentro de las competencias que el ordenamiento jurídico confiere a la Diputación Foral de Bizkaia, el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural tendrá atribuidas aquellas que se establecen en el presente Decreto Foral.

2. En concreto, al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural le corresponden las siguientes competencias:

Las atribuidas por el Estatuto de Autonomía, la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, la Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la legislación estatal y autonómica en materia de medio ambiente y conservación de la naturaleza, la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a la Diputación Foral, siempre que correspondan a materias reguladas en el presente Decreto y en los términos y contenidos que se expresan en el mismo, incluyendo la coordinación, impulso y desarrollo del Programa Bizkaia 21 para avanzar en un escenario de desarrollo sostenible del territorio.

La definición y desarrollo de la política ambiental de Bizkaia, cuyo objetivo sea lograr un territorio con una gran calidad medio-ambiental, basada en los principios de sostenibilidad, prevención, responsabilidad colectiva, solidaridad, competencia y subsidiariedad, favoreciendo el bienestar de la ciudadanía y el desarrollo socio-económico en clave de sostenibilidad ambiental y la constitución como órgano ambiental foral.



Autonomia Estatutuak eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko Legeak arlo hauetan esleitutakoak: basoak; baso-aprobetxamendu eta -zerbitzuak; abelbide eta larreak; baso-agentek eta baso-suteen kontrako defentsa; nekazaritza eta basogintzarako lurren kontserbazioa eta hobekuntza; landare-ekoizpena eta -osasuna (mintegiko landareak eta haziak izan ezik), mahastizaintza eta enologia; abere-ekoizpena eta -osasuna; landa-erreforma eta -garapena; nekazaritzaren arloko zabalkundea, sustapena eta gaikuntza, eta ehizaren eta ibaietako arrainen aberastasuna aprobetxatzeko araubidea.

Las atribuidas en el Estatuto de Autonomía y la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos en materia de Montes, aprovechamientos y Servicios Forestales, Vías Pecuarias y Pastos, Agentes Forestales y defensa contra incendios forestales, conservación y mejora de suelos agrícolas y forestales, producción y sanidad vegetal (salvo semillas y plantas de vivero), viticultura y enología, producción y sanidad animal, reforma y desarrollo rural, divulgación, promoción y capacitación agrarias y régimen de aprovechamiento de la riqueza piscícola continental y cinegética.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari izatea kide anitzeko organoetan zein ingurumena eta naturaren kontserbazioa babesteko nekazaritza-erakundeetan.

La representación de la Diputación Foral de Bizkaia en órganos colegiados y organizaciones agrarias, las defensoras del medio ambiente y la conservación de la naturaleza.

II. KAPITULUA

CAPÍTULO II

Eskumenak Eskuordetzea eta Gorakoek Bereganatzea.

De la Delegación y Avocación

2 artikulua. Eskumenak Eskuordetzea eta Gorakoek Bereganatzea.

Artículo 2. Delegación y avocación

1. Foru-diputatuari esleitutako eginkizunak Saileko zuzendari nagusiei eskuordetu ahal izango zaizkie, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 44.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

1. Las funciones que la diputada foral tenga atribuidas como propias podrán ser delegadas en los/las Directores/as Generales del Departamento de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.4 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Eskuordetzea foru-diputatuaren foru-agindu bidez egin beharko da; aldi baterako izango da, edozein momentutan ezeztatu ahal izango baita; hori guztia goian aipatutako otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 45. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat eta hurrengo puntuan xedatutakoa gorabehera.

2. La delegación deberá hacerse por Orden Foral de la diputada y tendrá carácter temporal, pudiendo ser revocada en cualquier momento, todo ello de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 45 de la ya citada Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, y sin perjuicio de lo dispuesto en el siguiente apartado.

3. Goragoko edozein organok ahalmena izango du, edozein momentutan, hierarkian beherago dauden organoei dagozkien gaien ardura bereganatzeko, bai eta organo horien jarduerak berrikusteko ere.

3. Cualquier órgano superior podrá recabar en cualquier momento el conocimiento de los asuntos que competan a sus inferiores jerárquicos/as y revisar las actuaciones de éstos/as.

II. TITULUA

TÍTULO II

Egitura eta Eginkizunak.

De la Estructura y Funciones

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I



Antolaketa.

De la Organización

1. ATALA ORGANON NAGUSIAK:

SECCIÓN 1ª ORGANOS PRINCIPALES:

3. artikulua. Organon Nagusiak.

Artículo 3. Organos Principales

Indarrean den araudiak emandako eginkizunak behar bezala betetzeko, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailean, haren titularraren zuzendaritzaren menpe-menpean, honako organon nagusi hauek egongo dira:

Para el adecuado ejercicio de las funciones que le encomienda la normativa vigente, el Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, bajo la inmediata dirección de su titular, estará integrado por los siguientes órganos principales:

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia.
- Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia

- Dirección General de Medio Ambiente
- Dirección General de Agricultura
- Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales

Zuzendaritza nagusiak unitate organikoak dira, eta izaera homogeneoko eskumen-multzoak dagozkie.

Las Direcciones Generales son unidades orgánicas a las que les corresponde el ejercicio de bloques de competencia de naturaleza homogénea.

Zuzendariordetza nagusia diputatuaren mendean dagoen unitate organikoa da, eta bereak zuzenean edo bere mendeko barne-organoen bidez kudeatzen dituen eskumen-arloez arduratzen da.

La Subdirección General es una unidad orgánica que, bajo las directrices de la Diputada, se ocupa de áreas competenciales gestionadas directamente o por los órganos internos que de ella dependen.

Bestalde, organon nagusi horien ardurapean, zerbitzuak eta atalak daude, zeinak funtzionamendurako barne-organonak diren.

A su vez, y dependiendo de estos órganos principales se encuentran los Servicios y las secciones, que son órganos internos de funcionamiento.

Salbuespena da Aholkularitza eta Arau Garapena Bideratzeko Zerbitzua, funtzionamendurako barne-organon bat bada ere, zuzenean foru-diputatuaren mende baitago.

Por excepción, el Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo, siendo también un órgano interno de funcionamiento, depende directamente de la Diputada Foral.

2. ATALA INGURUMENENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

SECCIÓN 2ª DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

4. artikulua. Xedapen Orokorra

Artículo 4. Disposición General

Honako zerbitzu eta atal hauek daude Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren barruan:

La Dirección General de Medio Ambiente se estructura en los siguientes Servicios y Secciones:

- Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua.
- Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua.
- Hidrologia Zerbitzua

- Calidad Ambiental.
- Patrimonio Natural.
- Gestión Ambiental.
- Hidrología.



5. artikulua. Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua

Honako atal hauek daude Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuaren barruan:

- Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala.
- Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala.

6. artikulua. Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.

Honako atal hauek daude Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren barruan:

- Biodibertsitatea eta Paisaia Zaintzeko Atala.
- Naturagune Babestuak Kudeatzeko Atala.

7. artikulua. Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua.

Honako atal hauek daude Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzuaren barruan:

- Ingurumen Azpiegituren Atala
- Ingurumena Lehengoratzeko Atala.

8. artikulua. Hidrologia Zerbitzua

Hidrologia Zerbitzuaren barruan ez dago atalik.

3. ATALA NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA

9. artikulua. Xedapen Orokorra

Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu hauek izango ditu:

- Landa Garapenerako Zerbitzua
- Nekazaritza Zerbitzua
- Abeltzaintza Zerbitzua

10. artikulua. Landa Garapenerako Zerbitzua

Landa Garapenerako Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

- Nekazaritzari Laguntzeko Atala
- Nekazaritza Egituren Atala
- Landa Azpiegituren Atala

Artículo 5. Servicio de Calidad Ambiental.

El Servicio de Calidad Ambiental se estructura en las siguientes Secciones:

- Evaluación de Impacto Ambiental.
- Sostenibilidad y Educación Ambiental.

Artículo 6. Servicio de Patrimonio Natural.

El Servicio de Patrimonio Natural se estructura en las siguiente Secciones:

- Biodiversidad y Paisaje.
- Gestión de Espacios Naturales Protegidos.

Artículo 7. Servicio de Gestión Ambiental.

El Servicio de Gestión Ambiental se estructura en las siguientes Secciones:

- Infraestructuras Ambientales.
- Recuperación Ambiental.

Artículo 8. Servicio de Hidrología.

El Servicio de Hidrología no se estructura en Sección alguna.

SECCIÓN 3ª DIRECCIÓN GENERAL DE AGRICULTURA

Artículo 9. Disposición General

La Dirección General de Agricultura se estructura en los Sigüientes Servicios:

- Servicio de Desarrollo Rural
- Servicio Agrícola
- Servicio de Ganadería

Artículo 10. Servicio de Desarrollo Rural

El Servicio de Desarrollo Rural se estructura en las siguientes Secciones:

- Sección de Asistencia Agraria
- Sección de Estructuras Agrarias
- Sección de Infraestructuras Rurales



11. artikulua. Nekazaritza Zerbitzua

Nekazaritza Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

- Nekazaritzaren Hobekuntza eta Landare Babesa Bultzatzeko Atala
- Landare Ekoizpenaren Atala

12. artikulua. Abeltzaintza Zerbitzua

Abeltzaintza Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

- Abere Osasun eta Ongizaterako Atala
- Abereen Aukeraketa eta Hobekuntzarako Atala

4. ATALA BESTE ORGANO BATZUK

13. artikulua. Xedapen Orokorra

Zuzenean foru-diputatuaren mende, Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia eta Aholkularitza eta Arau Garapena Bideratzeko Zerbitzua daude.

14. artikulua. Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia

Honako zerbitzu hauek daude Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusiaren barruan:

- Zerbitzu Orokorren Zerbitzua
- Baso Zerbitzua
- Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua

15. artikulua. Zerbitzu Orokorren Zerbitzua

Honako atal hauek daude Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren barruan:

- Giza Baliabideen eta Antolaketaren Atala
- Ekonomia eta Aurrekontuak Kudeatzeko Atala

16. artikulua Baso Zerbitzua.

Baso Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

Artículo 11. Servicio Agrícola.

El Servicio Agrícola se estructura en las siguientes Secciones:

- Sección de Mejora Agrícola y Protección Vegetal
- Sección de Producción Vegetal

Artículo 12. Servicio de Ganadería

El Servicio de Ganadería se estructura en las siguientes Secciones:

- Sección de Sanidad y Bienestar Animal
- Sección de Selección y Mejora Ganadera

SECCIÓN 4ª OTROS ORGANOS:

Artículo 13. Disposición General

Dependiendo directamente de la diputada foral está la Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales. y el Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo.

Artículo 14. Subdirección general de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales

La Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales se estructura en los siguientes Servicios:

- Servicio de Servicios Generales
- Servicio de Montes.
- Servicio de Fauna Cinegética y Pesca

Artículo 15. Servicio de Servicios Generales

El servicio de servicios generales se estructura en las siguientes secciones:

- Sección de recursos humanos y organización
- Sección de gestión económica presupuestaria

Artículo 16. Servicio de Montes.

El Servicio Montes se estructura en las siguientes Secciones:



- | | |
|--------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| - Basoak Zaindu eta Antolatze Atala. I. Aldea. | - Sección de Conservación y Ordenación Forestal, Zona I |
| - Basoak Zaindu eta Antolatze Atala. II. Aldea. | - Sección de Conservación y Ordenación forestal, Zona II. |
| - Basoak Zaindu eta Antolatze Atala. III. Aldea. | - Sección de Conservación y Ordenación forestal, Zona III. |
| - Baso-jabetza Publikoaren Babes, Esperimentazio eta Defentsarako Atala. | - Sección de Protección, Experimentación y Defensa de la Propiedad Forestal Pública. |

17. artikulua Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua

Artículo 17. Servicio de Fauna Cinegética y Pesca

Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

El Servicio de Fauna Cinegética y Pesca se estructura en las siguientes Secciones:

- | | |
|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|
| - Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atala. | - Sección de Caza y Pesca Continental. |
| - Fauna Basatiaren eta Abere Esperimentazioaren Atala. | - Sección de Fauna Silvestre y Experimentación Animal. |

18. artikulua Aholkularitza eta Arau Garapena Bideratzeko Zerbitzua.

Artículo 18. Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo

Aholkularitza eta Arau Garapena Bideratzeko Zerbitzuak atal hauek izango ditu:

El Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo se estructura en las siguientes Secciones:

- | | |
|----------------------------------------------------|-----------------------------------------------|
| - Araubide Juridikoaren eta Kontratazioaren Atala. | - Sección de Régimen Jurídico y Contratación. |
| - Informazio eta Aholkularitza Atala. | - Sección de Información y Asesoría. |

II KAPITULUA

CAPÍTULO II

Saileko Organoen Eginkizunak.

De las Funciones de los Organos del Departamento

1. ATALA FORU-DIPUTATUA

SECCIÓN 1ª DE LA DIPUTADA FORAL

19. artikulua. Foru diputatua.

Artículo 19. La diputada foral

Foru-diputatuari, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren titularra denez, Sailaren zuzendaritza eta ordezkaritza dagozkio, eta hark baliatuko ditu, bere eskumeneko gaiei dagokienez, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren bidez esleitzen zaizkion eskudantziak.

La diputada foral, titular del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, ostentará la dirección y representación del Departamento y ejercerá en relación con las materias propias de su competencia las atribuciones que se le reconocen en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia



2. ATALA ZUZENDARI NAGUSIAK ETA ZUZENDARIORDEA

SECCION 2ª DE LAS DIRECCIONES GENERALES Y DE LA SUBDIRECCIÓN

20. artikulua. Xedapen orokorra.

1. Zuzendari eta zuzendariordea esleitzen zaizkien zuzendaritza nagusietako eta zuzendariordetza nagusiko buruak dira. Haietan, zuzendaritza- eta aginte-postuak dituzte, eta honako eginkizun hauek betetzen dituzte: ordezkaritza; txostenak eta azterketak egitea; aholkularitza ematea; goragokoei proposamenak aurkeztea, eta beren mendeko barne-organoen jarduerak zuzendu eta koordinatzea.

2. Zuzendaritza nagusiei honako hauek dagozkie: Foru Aldundiak, Ahaldun Nagusiak eta Saileko foru-diputatuak ezartzen dituzten politikak gauzatzea, jarduera publikoaren lerroak garatzea eta kudeaketa-helburuak betetzea.

3. Administrazio-prozeduretan indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eginkizun zehatzez gainera, zuzendaritza nagusiei eta zuzendariordetza nagusiari dagozkie beren eskumenen arloko jardueraren ekimena eta bultzada egitea, saileko titularrak ezarritako ildoen arabera, bai eta atxikita dituzten zerbitzu eta atalen jarduna bultzatu, kontrolatu eta koordinatzea ere.

4. Zuzendari nagusiek elkar ordeztuko dute zuzendari-posturen bat bete gabe dagoenean, zuzendari bat kanpoan denean edo gaixorik denean, eta ordeztuari dagozkion eginkizun guztiak beteko dituzte.

5. Foru-diputatuak ez dagoenean, zuzendari nagusiek izango dute Sailaren protokolo-ordezkaritza, bakoitzak bere eskumenen eremuan.

6. Zuzendari nagusiek foru-diputatuak eskuordeturik beteko dituzte 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 44. artikuluko 4. zenbakian xedatzen denaren arabera hark ematen dizkien eginkizunak.

Artículo 20. Disposición General

1. Los Directores o Directoras generales y el Subdirector o Subdirectora son las personas titulares de las Direcciones Generales y la Subdirección General que les están encomendadas y ocupan los puestos directivos y de mando cuya competencia comprende funciones de representación, informe, estudio, asesoramiento y propuesta de carácter superior, dirigiendo y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

2. Corresponde a las Direcciones Generales la ejecución de las políticas, el desarrollo de las líneas de actuación pública y el cumplimiento de los objetivos de gestión establecidos por la Diputación Foral, el Diputado General o la titular del Departamento.

3. Sin perjuicio de las funciones específicas que en los procedimientos administrativos les atribuyen las disposiciones vigentes, compete a las Direcciones Generales y a la Subdirección General la iniciativa y el impulso general de la actuación de su área competencial según las líneas marcadas por la titular del Departamento, el impulso, control y coordinación de las actuaciones de los Servicios y Secciones que les son adscritos.

4. Los Directores y Directoras generales se sustituirán en casos de vacancia, ausencia o enfermedad, en todas las funciones que les están encomendadas.

5. Los directores y directoras generales en ausencia de la diputada foral, ostentarán la representación protocolaria del Departamento, dentro del ámbito de sus respectivas competencias.

6. Los directores y directoras generales ejercerán, por delegación de la titular del Departamento, las funciones que ésta les confiera al amparo de lo dispuesto en el artículo 44.4 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero.



3. ATALA ZERBITZU ETA ATALETAKO BURUTZAK

SECCION 3ª DE LAS JEFATURAS DE SERVICIO Y DE SECCIÓN

21. artikulua. Zerbitziburutzak

1. Zerbitziburutzak zuzendaritza- eta aginte-postuak dira, eta, beren nagusiek ezarritako ildoetara jarraituta, honako eskumen hauek dituzte: txostenak eta azterketak egitea, aholkuak ematea eta goragokoei proposamenak egitea; beren titulazioak berariaz ematen dien gaikuntzaren arabera jarduerak zuzenean egitea, eta beren mendeko barne-organoen jarduerak zuzendu, bultzatu eta koordinatzea.

2. Esleitu zaizkien eginkizunen barruan, zerbitzuetako buruei dagokie beren mende dauden lanpostuak zein izango diren erabakitzea eta haiek zuzendu, gauzatu eta kontrolatzea. Emaizak kontrolatuko dituzte, eta kontrol hori, zuzenean, beren administrazio-unitateetako langileei egingo diete.

3. Honako ahalmen hauek dituzte:

a) Zerbitzu publikoak zuzendu eta kudeatzea, bai eta beren eskumeneko gaiak ebaztea ere.

b) Beren menpeko bulegoen barne araubidea ezartzea eta kudeaketa-artxiboak ikuskatzea.

c) Sailaren jardun-ildoak betetzen direla bermatzea; horretarako, burutzen mendeko zentro eta unitateak bultzatu eta ikuskatuko dituzte.

d) Administrazio-jarduna zuzentzea beren eskumenen eremuan; horretarako, lehentasunak eta helburuak ezarriko dituzte.

e) Sailaren jardun-ildoak gauzatu eta garatzen direla bermatzeko, aurrekontuko aurreikuspenak definitu eta prestatzerakoan parte hartzea, bai eta jardueren plangintzan eta diseinuan ere.

f) Mendean dituzten langileen zuzendaritza eta zuzeneko kontrola egitea.

g) Beren eskumeneko gaitan bidezkotzat hartzen dituzten ebazpenak proposatzea goragoko organoei.

h) Eskuordetzen zaizkien guztiak.

i) Arau eta xedapenek esleitzen dizkieten gainerakoak.

4. Oro har, saileko edozein zerbitzuren titularraren postua bete gabe dagoenean, titularra ez dagoenean edo

Artículo 21. Jefaturas de Servicio

1. Las Jefaturas de Servicio son puestos directivos y de mando cuya competencia comprende, siguiendo las directrices de sus superiores, funciones de informe, estudio, asesoramiento y propuesta de carácter superior y la directa realización de actividades para las que les capacita específicamente su titulación, dirigiendo, impulsando y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

2. Las Jefaturas de Servicio son responsables, dentro de las funciones que tienen encomendadas, de la decisión, dirección, ejecución y control de los distintos puestos de trabajo integrados en las mismas, ejerciéndose ese control a nivel de resultados y efectuándose de forma inmediata sobre las personas empleadas de sus unidades administrativas.

3. Les corresponden las siguientes facultades:

a) Dirigir y gestionar los servicios públicos y resolver los asuntos que sean de su competencia.

b) Establecer el régimen interno de sus oficinas y la supervisión de sus archivos de gestión.

c) Asegurar la ejecución de las líneas de actuación departamental mediante el impulso y supervisión de los centros y unidades bajo su dependencia.

d) Dirigir la acción administrativa en su sector de competencias, señalando prioridades y objetivos.

e) Con el fin de asegurar la ejecución y desarrollo de las líneas de actuación departamental, participar en la definición y elaboración de las previsiones presupuestarias, así como de la planificación y diseño de las actuaciones.

f) Asumir la dirección y control inmediato del personal a su cargo.

g) Proponer a sus superiores jerárquicos/as las resoluciones que estimen procedentes en los asuntos de su competencia.

h) Aquellas que les fueran delegadas.

i) Las demás que les atribuyan las normas y disposiciones.

4. En general, en los casos de vacancia, ausencia o enfermedad de la persona titular de cualquiera de los



gaixorik dagoenean, zerbitzu horri atxikitako atalburuetatik karguan antzinasunetik handiena duenak hartuko ditu automatikoki haren eginkizunak.

22. artikulua. Atalburutzak

1. Atalburutzak aginte-postuak dira, eta, beren nagusiek ezarritako ildoak jarraituta, honako eskumen hauek dituzte: azterketak, aholkuak eta proposamenak egitea goragoko organoei, eta beren titulazioak berariaz ematen dien gaikuntzaren araberako jarduerak zuzenean egitea.

2. Esleitu zaizkien eginkizunen barruan, atalburuei dagokie beren mendeko lanpostuak zein izango diren erabakitzea, eta haiek zuzendu, gauzatu eta kontrolatzea. Emaizak kontuan harturik gauzatuko dute kontrol hori, eta zuzenean aplikatuko beren administrazio-unitateetako enplegatuengan.

3. Honako ahalmen hauek dituzte:

a) Zerbitzu publikoak zuzendu eta kudeatzea, bai eta beren eskumeneko gaiak ebaztea ere.

b) Beren mendeko bulegoen barne-araubidea ezartzea.

c) Mendean dituzten langileen zuzendaritza eta zuzeneko kontrola egitea.

d) Beren eskumeneko gaietan bidezkotzat hartzen dituzten ebazpenak proposatzea goragoko organoei.

e) Eskuordetzen zaizkien guztiak.

f) Arau eta xedapenek esleitzen dizkieten gainerakoak.

4. Oro har, saileko edozein ataleko titularraren postua bete gabe dagoenean, titularra ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, atalari atxikita dagoen maila handieneko funtzionarioa izango da ordezkoa, eta, irizpide horren arabera funtzionario batzuk egoera berean badaude, adinez nagusiena dena.

servicios del departamento, asumirá automáticamente sus funciones la persona titular de la sección adscrita al mismo con más antigüedad en el cargo.

Artículo 22. Jefaturas de Sección

1. Las Jefaturas de Sección son puestos de mando cuya competencia comprende, siguiendo las directrices de sus superiores, funciones de estudio, asesoramiento y propuesta de carácter superior y la directa realización de actividades para las que les capacita específicamente su titulación.

2. Las Jefaturas de Sección son responsables, dentro de las funciones que tienen encomendadas, de la decisión, dirección, ejecución y control de los distintos puestos de trabajo integrados en las mismas, ejerciéndose ese control a nivel de resultados y efectuándose de forma inmediata sobre los/as empleados/as de sus unidades administrativas.

3. Les corresponden las siguientes facultades:

a) Dirigir y gestionar los servicios públicos y resolver los asuntos que sean de su competencia.

b) Establecer el régimen interno de sus oficinas.

c) Asumir la dirección y control inmediato del personal a su cargo.

d) Proponer a sus superiores jerárquicos/as las resoluciones que estimen procedentes en los asuntos de su competencia.

e) Aquellas que les fueran delegadas.

f) Las demás que les atribuyan las normas y disposiciones.

4. En general, en los casos de vacancia, ausencia o enfermedad de la persona titular de cualquiera de las secciones del departamento, corresponderá la sustitución a la persona funcionaria de mayor rango adscrita a la misma, y en igualdad de condiciones según dicho criterio por la mayor edad.

III. KAPITULUA

Eginkizunen Banaketa

CAPÍTULO III

Distribución de Funciones



1. ATALA INGURUMENENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

SECCION 1ª DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

23. artikulua. Xedapen orokorra

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, 20. artikuluan ezarritakoez gainera, honako eginkizun hauek dagozkio:

1. Ingurumenaren iraunkortasunaren arloko politikak eta jarduerak sustatzea.
2. Ingurumenari buruzko hezkuntza eta kontzientziarioa areagotzeko plan eta programak sustatzea.
3. Ingurumen-ebaluazioarekin lotutako espedienteen azterketa teknikoa egitea, bai eta ingurumen-adierazpen estrategikoak, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak eta ingurumen-txostenak prestatzea ere.
4. Zerga-prozeduraren barruan, jarduera sailkatuen arloan eta ingurumenaren iraunkortasuna kontuan hartzen duen fiskalitatearen arloan esleitutako eskumenak baliatzea.
5. Naturaren kontserbazioaren arloan eta naturagune babestuak kudeatzeko tresnen arloan jarduerak sustatzea, foru-organo honi esleitutako emandako eskumenen arabera.
6. Bizkaiko Lurralde Historikoan atsedenleku eta aisiarako gunek berriak sustatzea, toki-erakundeen beharrezanekin bat etorritik.
7. Geodibertsitate, biodibertsitate eta paisaiaren arloko ekintza-planak egin eta garatzea.
8. Ingurumen-azpiegiturarako obrak burutzeko behar diren jarduerak guztiak egitea, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu badu obra horiek zuzenean egitea.
9. Bizkaiko Lurralde Historikoan hiri-hondakinak kudeatzeko plangintza egin eta garatzea.
10. Bide-obra publikoen ondoriozko betelanak egiteko proiektuak baimentzea.
11. Sistema Integratuaren zuzendaritza, koordinazioa eta ordezkaritza egitea, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko hondartzak kalitateko ekipamendu eta zerbitzuz hornitzea ere.

Artículo 23. Disposición General

A la Dirección General de Medio Ambiente, además de las establecidas en el artículo 20, le corresponden las siguientes funciones:

1. La promoción de políticas y acciones en materia de sostenibilidad ambiental.
2. La promoción de planes y programas para la educación y concienciación medioambiental.
3. El análisis técnico de los expedientes de evaluación ambiental y la formulación de las declaraciones estratégicas y de impacto ambiental, y de los informes ambientales.
4. Las competencias atribuidas en materia de actividades clasificadas y en materia de fiscalidad sostenible dentro del correspondiente procedimiento administrativo.
5. El fomento de actuaciones en materia de conservación de la naturaleza y de los instrumentos de gestión de espacios naturales protegidos, según las competencias asignadas a este órgano foral.
6. La promoción de nuevas áreas de esparcimiento y ocio en el Territorio Histórico de Bizkaia, de conformidad con las necesidades de los entes locales.
7. La elaboración, y desarrollo de los Planes de Acción de Geodiversidad, de Biodiversidad y de Paisaje.
8. La realización de cuantas actuaciones sean necesarias para la ejecución de las obras de infraestructuras ambientales cuya ejecución directa asuma la Diputación Foral de Bizkaia.
9. La Planificación de la gestión de residuos urbanos en el Territorio Histórico de Bizkaia, así como su desarrollo.
10. La autorización de los proyectos de rellenos procedentes de obras públicas viarias.
11. La dirección, coordinación y representación del Sistema Integrado de Gestión, así como la dotación de equipamientos y servicios de calidad en las playas del Territorio Histórico de Bizkaia.



12. Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura hidraulikoak aztertu eta analizatzea.

12. El estudio y análisis de las infraestructuras hidráulicas del territorio Histórico de Bizkaia.

13. Lurralde historikoko udalerriei bultzada eta laguntza ematea, Tokiko Agenda 21 eta Tokiko Agenda 2030 ezar ditzaten.

13. El impulso y apoyo a los municipios del Territorio Histórico en orden a la implantación en los mismos de las Agendas Locales 21 y Agenda Local 2030.

14. Esleitu zaizkion eskudantziak behar bezala betetzeko behar diren azterlan guztiak egitea.

14. La ejecución de cuantos estudios sean necesarios para el correcto cumplimiento de sus atribuciones.

24. artikulua. Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua

Artículo 24: Del Servicio de Calidad Ambiental

Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuari honako eginkizun hauek dagozkie:

Al Servicio de Calidad Ambiental, le corresponden las siguientes funciones:

1. Ikuskatzea ea egindako jarduerak aplikatu beharreko araudira egokitzen diren.

1. La supervisión de la adecuación de las actuaciones realizadas a la normativa aplicable.

2. Jarduera sailkatuen arloan esleitutako eskumen administratiboak baliatzea.

2. Las competencias administrativas atribuidas en materia de actividades clasificadas.

3. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren arloan esleitutako eskumenak baliatzea.

3. Las competencias atribuidas en materia de evaluación de impacto ambiental.

4. Zerga-prozeduraren barruan, ingurumen-fiskalitatearen arloan eskuordetutako eskumenak baliatzea.

4. Las competencias atribuidas en materia de fiscalidad ambiental dentro del correspondiente procedimiento tributario.

5. Bizkaian soinuaren kalitatea eta zarata kudeatzeko planak eta sistemak koordinatu eta zuzentzea.

5. La coordinación y dirección de planes y sistemas de gestión de la calidad sonora y del ruido en Bizkaia.

6. Zerbitzuak kudeatutako arloei buruzko araudi juridikoaren jarraipena, azterketa, aplikazioa eta araudi hori hobetu edo aldatzeko proposamena egitea.

6. El seguimiento, análisis, aplicación y propuesta de mejora o de modificación de la normativa jurídica que afecta a las áreas gestionadas por el Servicio.

7. Iraunkortasuneko sare eta programen esparruan egiten diren ingurumen-iraunkortasuneko jarduketak koordinatzea.

7.—La coordinación de las actuaciones en materia de sostenibilidad ambiental en el marco de las redes y programas de sostenibilidad.

8. Sailak ingurumen-hezkuntzaren arloan bultzatutako jarduketak sustatu eta koordinatzea.

8. El fomento y la coordinación de actuaciones de educación ambiental impulsados por el Departamento.

9. Zerbitzuari dagozkion gaiei buruzko txosten teknikoak egitea.

9. La realización de informes técnicos relativos a materias propias del Servicio.

10. Zerbitzuari dagokion aurrekontua egin, kontrolatu eta gauzatzea; horrek ez du eragotziko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak ekonomiaren eta aurrekontuen arloko bulego kudeatzaile gisa egiten duen jarduera.

10. La elaboración, control y ejecución del presupuesto correspondiente al Servicio, sin perjuicio de la actuación como oficina gestora en materia económico-presupuestaria de los Servicios Generales.



11. Goragoko organoek agintzen dizkieten gainerako guztiak.

11. Todas las demás que, en su caso, le sean encomendadas por sus superiores jerárquicos/as.

25. artikulua. Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala

Artículo 25: De la Sección de Evaluación de Impacto Ambiental

Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atalari honako eginkizun hauek dagozkie:

A la Sección de Evaluación de Impacto Ambiental, le corresponden las siguientes funciones:

1.- Ingurumen-ebaluazioarekin lotutako espedienteen azterketa teknikoa.

1.- El análisis técnico de los expedientes de evaluación ambiental.

2.- Plan zein proiektuak direla-eta egin behar den ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-adierazpen estrategikoarekin edo ingurumen-txosten estrategikoarekin amaitzen dena.

2.- La evaluación ambiental estratégica respecto de los planes y programas que concluya mediante la Declaración Ambiental Estratégica o Informe Ambiental Estratégico.

3.- Proiektuak direla-eta egin behar den ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren adierazpenarekin amaitzen dena.

3.- La evaluación de impacto ambiental respecto de los proyectos que concluya mediante la Declaración de Impacto Ambiental.

4.- Zaindu eta kontrolatzea ea ingurumen-adierazpen estrategikoak, ingurumen-txosten estrategikoak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenak betetzen diren.

4.- La vigilancia y control del cumplimiento de las Declaraciones Ambientales Estratégicas, Informes Ambientales Estratégicos y Declaraciones de Impacto Ambiental.

5.- Egunean izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan ingurumen-ebaluazioaren menpean jarri diren plan eta proiektuei buruzko datu-base bat.

5.- El mantenimiento de una base de datos de planes, programas y proyectos que hayan sido sometidos a evaluación ambiental en el Territorio Histórico de Bizkaia.

6. Atalari dagozkion gaiet buruzko txosten teknikoak egitea.

6. La realización de informes técnicos relativos a materias propias de la sección.

7. Atalari dagokion aurrekontua egin, kontrolatu eta gauzatzeari; horrek ez du eragotziko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzuak ekonomiaren eta aurrekontuen arloko bulego kudeatzaile gisa egiten duen jarduerari.

7. La elaboración, control y ejecución del presupuesto correspondiente a la Sección, sin perjuicio de la actuación como oficina gestora en materia económico-presupuestaria de los Servicios Generales.

8. Goragoko organoek agintzen dizkieten gainerako guztiak.

8. Todas las demás que, en su caso, le sean encomendadas por sus superiores jerárquicos/as.

26. artikulua. Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala

Artículo 26: de la Sección de Sostenibilidad y Educación Ambiental.

Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atalari honako eginkizun hauek dagozkie:

A la Sección de Sostenibilidad y Educación Ambiental le corresponden las siguientes funciones:

1. Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea baliatuz hasitako espediente administratiboak izapidetzea eta, oro har, ingurumen-informazioa zabaltzea.

1. La tramitación de los expedientes administrativos iniciados en el ejercicio del derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente y la difusión de información ambiental en general.



2. Tokiko Agenda 21a, Euskal Adierazpena zein ingurumen-iraunkortasunaren arloan funtsezkoak diren beste plan batzuk ezartzen laguntzea Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeei.
2. El apoyo a la implantación en los entes locales del Territorio Histórico de Bizkaia de la Agenda Local 21 y de la Declaración Vasca, u otros planes en clave de sostenibilidad ambiental.
3. Iraunkortasuna kontuan hartuz diharduten sare eta eragileekin koordinatzea.
3. La coordinación con las redes o agentes que operen en clave de sostenibilidad.
4. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan ingurumenaren arloan parte hartzeko eta heziketarako garatuko diren jarduketak zuzendu eta koordinatzea, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
4. La dirección y coordinación de las actuaciones de participación y educación ambiental a desarrollar en el seno de la Diputación Foral de Bizkaia y colaboración con otras entidades del Territorio Histórico de Bizkaia.
5. Jarduera sailkatuei buruzko aholkularitza teknikoa ematea Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeei, bete ditzaten bai zarataren araudiaren ondoriozko betebeharrak, bai eta bizitegirako hiri-lurzoruan ezartzen diren jarduera sailkatuak zuzentzeko neurriak ere.
5. El asesoramiento técnico a los entes locales del Territorio Histórico de Bizkaia en materia de actividades clasificadas, para el cumplimiento de las obligaciones derivadas de la normativa del ruido y relativas a las medidas correctoras de las actividades clasificadas en suelo urbano residencial.
6. Zerga-prozeduraren barruan, txosten teknikoak egitea ingurumen-fiskalitatearen arloan eskuordetutako eskumenak baliatuz.
6. La elaboración de informes técnicos en ejercicio de las competencias atribuidas en materia de fiscalidad ambiental dentro del correspondiente procedimiento tributario.
7. Bizkaiko Lurralde Historikokoan soinuaren kalitatea eta zarata kudeatzeko planak eta sistemak landu eta gauzatea, bai eta Bizkaiko Hondartzak Kudeatzeko Sistema Integralak kutsadura akustikoa dela-eta esleitzen dizkion eginkizun guztiak betetzea ere.
7. La elaboración y ejecución de planes y sistemas de gestión de la calidad sonora y del ruido en el Territorio de Bizkaia, así como el cumplimiento de las funciones que el Sistema Integral de Gestión de las Playas de Bizkaia le asignen en materia de contaminación acústica.
8. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren edukia kudeatzea web-orrian eta Bizkaia 21 atarian, Komunikazio Kabinetearekin koordinatuta.
8. Gestión de contenidos de la Dirección General de Medio Ambiente en la página web y en el Portal Bizkaia 21, en coordinación con el Gabinete de Comunicación.
9. Atalari dagozkion gaiei buruzko txosten teknikoak egitea.
9. La realización de informes técnicos relativos a materias propias de la sección.
10. Atalari dagokion aurrekontua egin, kontrolatu eta gauzatea; horrek ez du eragotziko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak ekonomiaren eta aurrekontuen arloko bulego kudeatzaile gisa egiten duen jarduera.
10. La elaboración, control y ejecución del presupuesto correspondiente a la Sección, sin perjuicio de la actuación como oficina gestora en materia económico-presupuestaria de los Servicios Generales.
